

ATXAGA, Bernardo. *Soinujolearen semea.*

Pamiela argitaletxea. Iruña, 2003ko abendua. 480 orrialde

Ainhoa AROZENA

Stonehаметik Obabara, Obabatik Stonehamera; tartean Donostia eta Bilbo edota San Frantzisko. Helduarotik ume eta gazte garaira, ume eta gazte garaitik berriro helduarora; protagonistaren bizimoduaren errepasoa egiten du liburuak, heriotza iritsi arte.

David protagonistak haurtzarotik hasita, bere memoria la idatzi du Stonehameko arrantxoan. Txiki-txikitandik Obaban izandako oroitzapenak bilduko ditu bertan. Lekuona etxeko gertakizunak eta bereziki, Iruain baserriko pasadizoak. Zelai berdeak, zaldiak, erreka, tximeletak, basamutilak, lagunartea... baserriko giro lasalari gerrate zibileko ondorio latzak gainjarriko zaizkio, giroa guztiz nahastu arte. Davidek, Obaban gertatutako fusilaketen berri izateaz gain, herritarrrak erailtzen bere aita Angelek parte hartu zuela jakingo du. Inoiz oso gertu sentitu ez bazuen ere, aitarengandik aldendu eta gertaera haien berri zehazten saiatuko da inguruko lagun bidez, dela osaba Juan, dela Lubis, dela Cesar irakaslea... Obabako bizimodu nahasian bere lekua topatzen saiatuko da. Urteak aurrera, ordea, unibertsitate garaian ezagututako Agustin laguna eta Obabako Joseba ere, Euskadi askatzearen aldeko mugimenduan hasiko dira eta ihesean ibiltzea egokituko zaie. Ihesaldiak ondo kostata lortu duen Virginiarekiko maitasuna alde batera uztea behartuko du. Gartzelan urte eta erdi inguru igaro ondoren, Euskal Herriarekiko ezintasun sentimenduak eraginda, Stonehamera, osaba Juanen arrantxora bizitza berri bati ekitera abiatzea erabakitzen du. Paradisua aurkituko du bertan Davidek.

Eleberriak bizitza bera du gai nagusi, baita hainbat ezezagunen eta lagun bidez heriotza ere. Maitasunak zer esanik ez, pisu handia du

eleberrian. Daviden bizitzan, Obabako Teresak eta Virginiak, eta Stonehametik San Frantziskora egindako bidaiaren ezagututako Mary Annek leku berezia dute. Mary Ann izango da bere bizitzari zentzua emango dion pertsona eta baita David bere memorialeak idazten has-teko arrazoia ere.

David hil ondoren, Stonehamen Mary Annek Josebari emango dio bere senarrak idatzi zuen liburua, Obabako liburutegian utz dezan. Josebak Daviden hitzetan oinarrituta idatzitako kontaera da liburu-irakurriko duguna. Baina ez hori bakarrik, Josebak berak idatzitako hiru pasarte ere badira, Don Pedro Galarretak "amerikanoak" utzitako bere fusilamendu saiakeraren kontaez gain.

Hizkuntzaren tratamendua dotorea da liburu osoan zehar. Hitz zahar eta berriekin jolasean, euskararen aldarria egiten da eleberrian. Naturan oinarritutako kokalekuen deskribapen ugari ere biltzen da. Liburuaren tonua guztiz lasaigarria da, eta pertsonaiekiko, gertaerekiko nahiz lekuekiko lortzen duen gertukotasunagatik seguruenik, irakurlea ez da konturatu ere egingo liburu mardul baten aurrean da-goela.

Irakurtzea atsegin duenak, gozamina aurkituko du liburuaren orrietan barrena. Bikaina.